

**A zer kopeta daukan!**

Kaixo, Maren, non zabilta? Ai, zure laguntza behar dut. Idoiak Gironan astebete pasatzera gonbidatu nau, eta baietz esan diot, baina zure laguntza behar dut katua zaintzeko. Mesedez, pasa Markelen etxetik, hartu nire etxeko giltzak eta joan katuarekin pixka bat jolastera, badakizu zer mimosoa den! Bide batez, jarrizkiozu ura eta janaria, faborez, eta, inporta ez bazaizu, etxera joaten zarenean, hustu postontzia eta bota ura landareei.

Ai, eta beste gauza bat! Garbigailua jarri dut, baina ez dut arropa zabaltzeko astirik izan. Zabalduko duzu, mesedez? Mila-mila esker, Maren. Opari ederra ekarriko dizut handik! Bueltatzen naizenean deituko dizut. Musuuuuu!!!!